



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2010-4-11

VIII. URTEA 1972. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Stock and Braderie ekimenak jende ugari erakarri zuen atzo Tolosara. ENERITZ MAIZ

KRISIAK BULTZATUTA EDO AURRE EGITEKO STOCK AND BRADERIE

TOLOSA Braderie ekimena atzo amaitu zen baina Stock-a gaur ere zabalduko dute Beotibar pilotalekuan, 10:00etatik 18:00etara 6

'Zaindu maite duzun hori!' ekimena jarri dute abian

ALEGIA Udalak eta hainbat merkatarik plastikozko poltsak ordezkatu nahi dituzte 7



Topic-en ikusgai daude txinatar txotxongiloak. INIGO TERRADILLOS

Txinako tradizioa txotxongiloen aurpegietan

TOLOSA Txinatarren izaera ezagutzeko aukera eskaintzen du Topic-en dagoen erakusketak 4-5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01


(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 beheak • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P,K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>



K Komikia

Nando



Etxean goxo-goxo



» Uzturretik

Iraitz Lizarraga

Herriko tabernarik mitikoentako bat ixtearekin burura galdera bat datorkigu hainbat gazteri (eta gaaaaaaaaaaaaaztaroa

luuuuuuuuuuatu nahi dugun batzuei ere): Non arraio elkartuko gara hemendikurrera? Egiaesan, ni ez naiz, tabernazale amorratua, baina faltan botako dut hainbat urtetan herriko gazteen elkargune bilakatu den txokoa.

Aspaldian buruan dabilkidan gogoeta bat indartu besterik ez du egin honek: izan ere, gero eta gutxiago dira kalera jaisteko ditudan aitzakiak! Taberna kontuekin jarraituz; lehen kafe goxoa hartzera joaten nintzen, orain ordea gabo-

netan George Clooneykekarritako Nexpresoa dut etxean, beraz, atera beharrik ez... Gainera, kafe goxoarekin derrigorrezkoa zen zigarrak erretzeko, geroz eta traba gehiago ditut... beraz, hobe etxeko balkoian!

Lagunekin egoteko ere ez dut jaitsi beharrik... zertarako dago ba facebook-a? Inoiz baino informatuagoa nago lagunen joan etorriez eta beraien egoeraz; parrandara atera beharrik ere ez dut, segituan iragan gaueko argazkiak agertzen

baitira publikaturik! Mendizaleek euren eskurtsioak zintzilikatzen dituzte... beraz, igande goizean mendirako goiz esnatu beharrik ez! A! eta ez ahaztu baratz birtuala erein dezakegula etxetik: porruak, marrubiak, garia landatu... gero saldu... eta traktorea erosi!!

Geroz eta gehiago dira lanerako etxetik atera behar ez duten pertsonak, internet bidez ofizina etxean eduki dezaketelako. Erosketak egiteko ere, kriston txoiloak daude sarean, zertarako galdu denbora dendarik denda?

Mundu berri honen neurritan eraikitzen ari dira etxeak ere: etxe

multzo residentzialak omen dira: pisuaz aparte, -2 pisuan garajea duzu, bertan aparkatu, aszensora hartu eta -1 pisuan supermerkatua dago kokaturik, erosketa egin eta aszensora hartu besterik ez duzu zure pisuraino igotzeko.


Egun oso bat kaleko haizea somatu gabe eta zerua (urdira, grisa zein lainotua) ikusi gabe pasatzea geroz eta posibleagoa eta normalagoa da!!! Agian katastrofistegia an eduki dezaketelako. Erosketak egiteko ere, kriston txoiloak daude sarean, zertarako galdu denbora dendarik denda?

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Egongelako altzariak.** Armairua, mahai borobila 4 aulkirekin eta 5 piezako bi sofa. Oso egoera onean daude. Interesatuak deitu 610 68 60 68 telefono zenbakira.

■ **Lokala.** Iruran, Laskibar bailaran, N-1 ondoan. 118 m². 78.000 euro. 645 72 19 47.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko komunikabide batek
Kazetaritza edota Euskal Filologian
lizentziatuak
edo ikasleak behar ditu
lan poltsa osatzeko.

Interesatuak deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a tosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbidera

libre!

2003ko otsailaren 20ean itxi zuten 'Euskaldunon Egunkaria'. 2009ko abenduaren 15ean hasi eta joan den otsailaren 1ean amaitu zen Torrealdei, Uri, Auzmendi, Oleaga eta Otamendiren aurkako epaiketa. Prozesuaren inguruan, aurretik, tartean eta ondoren gurera irritsikoak laburbildurik jarraian.

'Egunkaria auzia' ren epaia bihar

«Herritarren bultzadarekin auzia irabaztea lortuko dugu»

«Larrituta goaz Madrilera, gure aurkako akusazioak oso larriak direlako»

«Torturaren bidez ET Ari eginiko elkarrizketen inguruko informazioa lortu nahi zuten»

«Guztiaren atzean Guardia Zibila dago»

MARTXELO OTAMENDI
2009-12-01

«Fiskalaren jokabidea modu positiboan baloratzen dugu. 2006ko azarotik ez du akusaziorik egin»

«Oraindik kezkatuta jarraitzen dugu, ez dakigulako guardia zibilen akusazioa zein izango den»

«Auzitegi Nazionalean gauzak ondo hasi arren erraz oker litezke»

«Jendeari azken bultzada eskatzen diogu: Bilbora joatea eta kaleak betetzea»

MARTXELO OTAMENDI
2009-12-18



«Ez dago galderarik»

FISKALA, EPAIKETAN ZEHA
2010-1-12

«Kasua artxibatuta zegoela uste nuen»

«Atxiloketa garaian dena normal joan zen»

GUARDIA ZIBILA, EPAIKETAN
2010-1-12

«Erakunde armatuak ez du inoiz sustatu 'Euskaldunon Egunkaria'»

'TXELIS', EUSKAL PRESOA
2010-1-12

«Euskadi Ta Askatasun ez genuen batere hitz egin 'Egunkariaz'»

DORRONSORO, EUSKAL PRESOA
2010-1-12

«ETAk esanda jarri zuten Martxelo Otamendi 'Egunkaria' ko zuzendari 1993. urtean»

HERRI AKUSAZIOA: AVT/DYJ
2010-1-25

«'Egunkaria' ko arduradunek niri eskaini zidaten zuzendari postua 1990ean eta 1993an»

«Aukeraketa lagundu nahian Martxelo Otamendiren izena jarri nuen mahai gainean»

IMANOL MURUA, LEKUKOA
2010-1-25

«Fabulazioen gainetik egia gailenduko da. Lasai baina erne jarraitu behar dugu»

JOAN MARI TORREALDAI
2010-1-25

«Madrilen errugabetasun presuntziotik eginiko lerroburuak gailentzen ari dira»

OHIANE PEREZ, BERRIEMAILEA
2010-1-26

«Elkartu gaitezen, herri hau sortzen segi dezagun»

GALTZAUNDI EUSKARA TALDEA
2010-1-31

«Nori egingo lioke mesede zigor-epai hipotetiko batek»

NEREA AZURMENDI, DV
2010-1-31

«Euskaldunok behar dugu 'Euskaldunon Egunkaria'»

JON ANDER UBEDA, AIURRI
2010-1-31

«Euskara eta herri mugimenduen kontrako kriminalizazio garbia»

IRIGOIEN, TTIPI-TTAPA
2010-1-31

«Absoluzioa»

EGUNKARIA EGUNA, TOLOSA
2010-2-21

Azkenean iritsi da udaberria Tolosako azokara!

PABLO ALBERDI

Atzo udaberria ikusi genuela esan genezake. Itxaron behar izan dugu, baina azkenean azokako txoko guztietan urtaro berriaren koloreak nagusitu dira. Eguraldi onak gainera, erosle kopuru handia eraman zuen produktu bila.

Zerkausian ilarrak, patata berria, baratxuri freskoak eta zainzuriak, gero eta ugariago gainera, ikusi genituen atzokoan. Iragan astean, 800 gramo ziza ikusi genituen. Hauek 120 eurotan saldu ziren. Atzo berriz 18 kilo aurkitzen ziren azokan eta 58-100 euro ordaindu zen kilo.

Eguraldiak bide honetatik jarraitzen badu, Tolosako azokaren protagonismoa Berdura Plazak hartuko du hurrengo asteetan; gure lurraldearen zain aurkitzen baitira.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
Landareak		
Alegria	1,50	2,00
Erromeroa	4,00	6,00
Zainzuria	2,80	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Zizak	58,00	100,00

Fruta		
Kiwia	3,50	-
Errezil sagarra	2,00	4,00
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak (sorta)

Tipula berria	1,50	-
Tomatea	3,25	4,00
Ilarrak	12,00	-
Bainak	3,00	4,00
Patata berria	1,50	-
Porruta	1,00	3,00

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



TRISTURA ARINTZEKO SORTUAK

Kultura Txinako txotxongiloen historiako tradiziozko pertsonaiekin osaturiko erakusketa dago ikusgai Topic-en, maiatzaren 30era arte.

INGO TERADILLOS

Maliko txotxongiloena izan zen Topic zentroko behin behineko lehenbiziko erakusketa, eta hura aldatzeko menioa, txintarrek hartu dute orain lekua. Hain zuzen ere, Txinako txotxongiloen historiari tradiziozko pertsonaiek izan direnekin osaturiko erakusketa zuzenari ahalik eta maitatuz 30era arte.

Ez dute historia laburra Txinako txotxongiloek. Duela bi mila urte sortu ziren, eta egundaino arreta handiz konserbatu dituzte. Txotxongiloak ez ezik, euren ezagueriak ere iratu dute, eta horien artean aipatzeko dira pertsonaiek, sei kategorian banatzen dituzte. Txotxongiloak ez ezik, euren ezagueriak ere iratu dute, eta horien artean aipatzeko dira pertsonaiek, sei kategorian banatzen dituzte. Txotxongiloak ez ezik, euren ezagueriak ere iratu dute, eta horien artean aipatzeko dira pertsonaiek, sei kategorian banatzen dituzte.

Chou pertsonaia guztiz kontrako ezagueria baitu.

Sei aurpegi, sei jarrera

Sheng pertsonaia gizonzkoa eta heldua izaten da. Bi sheng mota daude: Wu-Shengek ausart eta prentu irama izaten dute, eta burdinazko jantzia edo jantzi estuak erabiltzen dituzte; Xiao-Shengak, berriz, erakargarriak eta ongi hezitak izaten dira.

Txotxongiloek hildako senideekin batera beste mundura bidaiatuko zutela uste zuten

Sheng Guai pertsonaiek, berriz, begunoginatu, igorri eta baliak izaten dituzte. Txotxongiloen eta iral bidezko txotxongiloen artean zuzenean agortzen da, eta iluskeen gogokoena izan ohi da.

Sorrera, hiletetan

Gizon aberas eta boteresuaren hiletetan hasi ziren Txinako txotxongiloak erabiltzen. Jendeak uste zuten zurezko txotxongilo

haiek hildakoekin batera bidaiatuko zutela beste mundura, eta han hildakoan lagun edo zerbitzari bihurtuko zirela. Iral bidezkoak ere horrela sortu ziren; sorginek eta azirik hildakoak irudikatzen zirelako, eta senideei haiek iluslekoak eraman zieten itzalak bidetz. Azken batean, bizirik gelditzen zirenei arindu egiten zieten heriotza sormenaren bidez.

Izal, hari, eskularru eta higitxo bidezkoak

Eguneko txotxongiloek edo iral bidezkoak ipuin kontalariarekin bat egiten zuten, Txinako tradizioen ikusizko arrakastatsuenetako izango zena sortu zuten. Gaur egun iral bidezkoak dira Txinako eta Taiwaneko erakusketak, eta haurrek zain behar bezala gozatzen dute euren ikusizkoen. Ming dinastiaren sortu zuten korria, hiriburua berriro Pekin inoiz datu zutenean, eta jalditxan nahiz ikusketan ezinbesteko ikusizko izatera iritsi ziren.

Zaharrek, baina, hari bidezkoak dira. 5-16 harloak izan ziren txotxongiloak eta gerora, 32 haridun txotxongiloak ere sortu ziren.

Bestalde, eskularru bidezkoak ipuin kontalarien osagarri bezala sortu ziren hasieran, baina jokoan hari bidezkoak ordezkatu joan ziren lortu zuten arrakastagatik. Azken lekuan leudeke hazteko bidezkoak. Haren historia nahiko laburra da, eta Txina hegaldoko berezitasuna dela esan daiteke. Tsimosio hedatua dago txotxongiloen artean.

Adituen laguntza

Topic-en ikusgai jarri duten erakusketaren bidez ilusle orok berezi ahalo ditu Txinako txotxongiloetan tradiziozko pertsonaiek eta baita mota desberdinak ere, eduki siltatuta baitaude, bakoitza bere azalpenarekin. Tolosako Ekimibile Etxeko kideek Simon Wong Hong Kong-eko Ming Bi Institutuko zuzendariaren aholkuak jarraitu dituzte erakusketa behar bezala atontzeko. Wong-ek eduki ezagutzen du Tolosa eta Tiritzi Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdia, eta Topic-en museoren fondazioa piztuta ikusgai jarri duen Txinako txotxongilo bilduren diseinaren aholkularitza ere hartu du parte.



Sheng pertsonaiek gizon ederrak izan ohi dira.1



Ilusleei emozioak sorrarazteko ardua izaten dute. Jing pertsonaiek.1



Mota askotako Dan-ak daude: neska xarmagarrietatik hasi eta gerlari ausartetaraino.1



Lao Shen pertsonaiek jakiduria irudikatzen dute.1



Shen Gual pertsonaia berezia da, hainbat trebezia izaten baititu.1



Chou da pertsonaia dibertigarri eta ahilena, eta zintzoa nahiz gaiztoa izan daiteke.1

Beotibar eta kaleak jendez bete dira aukera onen bila

Tolosa » Atzo Beotibarrez gain, eguzkia lagun zutela, 28 dendek euren produktuak kalera atera zituzten. Gaur oraindik Beotibarren bada aukera.

ENERITZ MAIZ

Tolosako merkataritza elkarteek, Igarondok eta Alde Zaharra Dendek, antolatuta azoka berezia izan zen atzokoan eta Beotibarkoak gaur ere jarraipena edukiko du. Stock-aatzo eta gaur Beotibar pilotalekuan izango da eta Braderie atzo egin zuten herriko 28 dendek. Eskaintza honekin, herriko merkataritza bultzatzeaz gain, produktuak merkeago erosteko aukera paregabea eskaini nahi izan dute.

Aurtengoa Stock azokaren III. edizioa izan da eta Braderie berri lehen aldiz egin dute. Braderie jarri zuten 28 dendek berri izateko, planoak banatu zituzten eta denda horietan produkturen bat erosten zutenei, txartel bat ematen zieten datuak bete eta ondoren egongo den zozketan parte hartzeko.

Era guztietako arropa, oinetakoak, etxeko produktuak, farmaziakoak, bitxiak...denetik ikus zitezkeen kalean, eta baita mahai ho-

rien bueltan jende ugari ere. Bestetik, Alde Zaharreko kaleetan barenna giroa alaitzeko lana Bonberenea Txarangarena izan zen.

Gaurkoa pasa ostean, balantzea egiteko garaia

Beotibar Pilotalekuko atea irekitzerako jendea zain egon zen ilarran. Egunean zehar jendearen joan-etorriarekin gustura zeuden, nahiz eta, momentu batzuetan gehiegi ere izan baziren. Jende asko ikusmiran ibili arren, erosi ere egin zuten eta orokorrean gustura ziren saltzaileak nahiz eta iritzi guztiak berdina ez izan. «Esperientzia eta aukera polita» dela euren produktuak modu honetan saltzen jartzea adierazi digute.

Musika eta etxerako produktuen kasuan, jende gehiena ikustera mugatzen zela adierazi zuten, baina arropa eta oinetakoekin kasuan, orokorrean salmentekin gustura agertu ziren. Sartzeko euro bat ordaindu behar izateak



Beotibar pilotalekuan ez zen jenderik faltatu. 10:00etan jendea atea zabaltzeko zain egon zen. E. MAIZ

era guztietako eraginak izan ditu; batzuek barrura eta beste batzuek atzera egin zuten atera iristean.

Baina benetan III. Stock azokaren balantzea, gaur arratsaldeko 18:00etan atea ixten dituztenean egin beharko dute. Batzuek aurreko urteetako esperientzia gustatu eta errepikatu egin dute, beste batzuek aldiz, lehen aldiz zuten bertan parte hartzen.

» STOCK AZOKA

Beotibar pilotalekuan

■ **Gaur.** 10:00etatik 18:00etara atea zabalik izango dira bertaratu nahi duenarentzat.

■ **Euro 1.** Sarrera ordaindu beharko da baina, Txurrerian 6 txurro edo herriko 16 tabernetan sarreraren truke pintxo bat jateko aukera izango da.



Kaleetan ere, jendeak zer ikusia eta erosia izan zuen. E. MAIZ



Kaleak animatzeko lana Bonberenea Txarangarena izan zen. E. MAIZ

Laburrik

Nazioarteko Gaurkotasuna hitzaldiak hastear Topic-en

TOLOSA » Jesus Torquemada kazetariak emango dituen Nazioarteko Gaurkotasuna hitzaldiak hastear daude. Topic-eko auditorioan emango ditu eta hilaren 12an hasi eta ekainaren 14a bitarte astelehenero astelehenero izango dira. 19:00etan hasiko dira baina kudeaketa egokirako, bertan parte hartu behar dutenei, 18:30ak aldera gerturatzeko deia eginen diete.

Tolosa Kup 2010ean izena emateko aukera bukatzeaz

TOLOSA » Tolosa Kup 2010ean izena emateko epea luzatu egin dute hilaren 13a, astearte, bitarte. Kultur Etxean aurkeztu beharko dira izen emate orria eta ordainketaren agiria edota e-mailez gazteria@tolosakoudala.net helbidera bidali daitezke. Informazio gehiago, <http://zazpitantriangulon.com/?pinzip=php/info.php&id=14> helbidera eskura daiteke.



Euskadiko II. Liga jokatu da

VILLABONA-ZIZURKIL » Halterofiliaren Euskadiko II. Liga jokatu zen atzo Villabonako Olaederra kiroldegian. Eguraldi ezin hobea egin zenez, Kiroldegia eraberru egin beharrean kanpoko frontoian egin zuten Txapelketa. Kadete eta Promesen mailako 33 pultsu-

lari lehiatu ziren pisu ezberdinetan. Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Bizkaikoak izan ziren Villabonako eta gipuzkoarren artean, Danena taldeko kideak izan ziren. Irudian, Promesen mailakoa den Iñaki Zubelzu ikus daiteke. E. MAIZ

Udalaren eta merkatarien kanpaina abian plastikozko poltsak ordezkatzeko

Alegia » «Ingurugiroari keinu txiki, erraz, baina garrantzitsua» egiteko, oihalezko edota paperezko poltsak banatuko dituzte.

ERREDAKZIOA

Zaindu maite duzun hori! lelopean, kanpaina jarri dute martxan Alegiako Udalak eta merkatariek (dendari eta tabernariak) elkarlanean. Plastikozko poltsak oihalezkoekin edota paperezkoekin ordezkatzu, «ingurugiroari keinu txiki, erraz, baina garrantzitsua» egin nahi diote Alegian.

Eguneroko salerosketetan ematen den plastikozko poltsen kontsumoaz arduraturik Udalera jo zuten zenbait merkatarik, gaiari heldu eta ekimen bateratu bat martxan jartzeko aukerarik ba ote zen galdezka. Ordurako Udal taldean eregaia mahaigainean zuten, eta, beraz, kanpainari heltzeko erabakia hartu zuten.

Ingurugiroarekiko errespetuzko kontsumo ohiturak bultzatu nahi dituzte *Zaindu maite duzun hori!* lelopean. Zentzu horretan neurri asko har daitezke, tartean,



Kanpaina parte hartzen duten zenbait merkatarik eta Patxi Renobales zinegotzia poltsa erabilgarriekin. I. GARCIA

plastikoaren erabilera ahalik eta gehien gutxitzea. Beraz, plastikozko poltsak baztertu eta horien ordeztu oihalezkoekin edota kasu batzuetan paperezkoekin erabiliz, ingurugiroaren aldeko pauso bat egitera animatu nahi dituzte herritarrek.

«Norberak bere etxetik hasita egin beharreko ohitura aldaketa da», azaldu dute kanpainaren bul-

tzatzaileek. «Eguneroko lana da, erosketak egiten ditugun aldiro errepikatu beharrekoa, baina ez du ahalegin handirik eskatzen, eta behar beharrezkoa iruditzen zaigu maite dugun hori, hau da, gure ingurunea zaintzeko».

Banatuko dituzten poltsak bererabilitzeko dira: «Behin eta berriro erabilitzeko. Aukera hori denen eskura jarri nahian bat egin

dugu merkataririk eta Udalak: oihalezko 2.000 poltsa eta paperezko 7.300 poltsa banatzeko konpromisoa hartu dugu». Udalak etxe bakoitzeko poltsa bat banatuko du datorren astean zehar, eta gainerakoak erosketak egiterakoan merkatariek emango dituzte. Oihalezko poltsak ohiko erosketak egiterakoan erabilitzeko dira, eta erosketak txikiak kasuan edota ta-

» PARTE-HARTZAILEAK

Oraingoz kanpaina parte hartzen duten merkatarik:

- Ana Murua jantziak.
- Aliprox janari-denda.
- Elena Arratibel farmazia.
- Xune estetika zentroa.
- Tere jantziak.
- Agirre harategia.
- Gabetxa ile-apaindegia.
- Maritxu janari-denda.
- Amaia janari-denda.
- Alegia burdindegia.
- Zaharren Egoitza edaritegia.
- Ixkiña edaritegia.
- Etxeberria edaritegia.
- Hilario-Berri edaritegia.

bernetan janaria erosterakoan, berriro, paperezkoak emango dira.

Beraz, deia egin nahi diete herritar guztiei anima daitezen beren poltsak jaso eta behin eta berriro erabil ditzaten, «berriro diogu, gehien maite dugun hori denon artean zaintzeko».

Era berean, herrian banatuko dituzten poltsa horiek herrian bertan erabilitzeko deia egin dute, hau da, bertako denda eta tabernetan erabilitzeko, «ingurugiroa zainduduz eta herrian bertan erositu gure herria bizi-bizirik mantentzeko». Oraingoz hamalau merkatarik hartzen dute parte kanpainan honetan, baina herriko beste merkatarientzat parte-hartzea zabalik da goela zehaztu dute.

Romeok eta Jauregik Udalak Ekuadorren finantzatutako proiektuak bisitatu dituzte

Ibarra » Baba eta Santa Rosa herrietan izan dira alkatea eta zinegotzia eta bertakoekin «esker ona» azpimarratu dute.

ERREDAKZIOA

Txelo Romeo Ibarra alkatea eta Itziar Jauregi Euskara eta Hezkuntza zinegotzia Ekuadorrerantz bisita ofiziala egiten ari dira. Bidaia horren barne, azken egunotan, Ibarra Udalak finantzatutako proiektuak garatzen ari diren udalerrietara gerturatu dira. Horrela, udal ordezkariak Baba eta Santa Rosara joan dira eta emandako laguntzekin eraikitzen ari diren gizarte-izaerako azpiegiturak ezagutu dituzte.

Baban, Romeok eta Jauregik Izaskun Azurmendi ingeniariak bertan egon den lau urteetan zehar egin duen lana ezagutu dute. Udal ordezkariak herri honetako enpresa pilotzaileak bisitatu du. Koo-

peratiba bat da eta bertako bazkideek arroz lehorte, azala kendu eta zakutan saltzen dute, bitartekariarik gabe. Formula honi esker, arroz zakua bakoitzeko merkaturian salduz lortuko litzatekeenaren bikoitza lortu ahal izan da, Ekuadorreko Gobernuarekin sinatutako akordio bati esker.

Baban bertan, hezkuntza programa bat ere sustatu da eta parte hartu duten pertsonak osasunaren, heziketaren eta nekazaritzaren sustatzaile bihurtu dira. Kuxazain postua ere sortu da, hau da, komunitatean aurrezkiak eta mailerriak kudeatzeaz arduratzen den pertsona. Alkateak eta zinegotziak Babako herritarrek ibar hartu duen lana zenbat maite duten eta bere lana zenbat baloratzen den ikusi dute.

Ondoren, Santa Rosara joan dira, Udalak bertan Misio Taldeak koordinatutako proiektu ezberdinetan inbertsioa egin baitu. Txanda honetan, bisita gidatu duen pertsona Aita Jose Mari Garmendia

izan da. Berak abeletxe bat, farmazia bat eta aroztegi baten eraikuntza lanen garapena erakutsi die eta baita komunitate ezberdinei zuzendutako esparruen handitzeak eta baita ere beste ekimen batzuk. Bere lan humanitarioa ere asko baloratzen dute Santa Rosako bizilagunak eta, ikusi ahal izan dutenez, apaiza oso ezaguna da herritarren artean.

Izaskun Azurmendi ibar ingeniariak Baban lau urteetan zehar egin duen lana ezagutu dute

Txelo Romeok eta Itziar Jauregik bi herri hauetan jaso duten «harrera beroa» azpimarratu dute eta bertatik igaro diren Ibarra pertsonak utzi duten oroitzapen atsegina. Era berean, «herri hauen adeitasuna eta Ibaratik jaso duten laguntza ekonomikoari ematen dioten esker ona» argi utzi nahi dute.



Txelo Romeo eta Itziar Jauregi Baban antolatutako ekimenetako batean. HITZA



Aita Garmendia, Santa Rosako lan humanitarioen koordinatzailea. HITZA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



● ZAMORA

«La soledad izeneko prozesioari ateratako argazkia. Ondo izan».

KRISTINA MARTUA



● SALAMANCA

«Salamanca aldean oporretan gabiltzala honako irudi honekin topatu ginen: Bienvenida izeneko emakumea 89 urterekin lurreen belarriko arropa garbitzen. Honentzako oraindik 'labadorarik' ez da iritsi. Eta gu kexatu egiten gea!!!!».

MILA ARRONDO (IBARRA)

A Agurrak



Zorionak J.R.!

Joxe Ramon Etxarri (Areso).
Zenbat urte pasa dira? Je, je Txintxo ibili!



Urte Askoan!

Inge Vazquez Azkolain eta Iraia Gonzalez Azkolain (Tolosa). Ingek gaur 2 urte eta Iraiak bihar 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat guraso eta aiton amonen partetik.



Urte Askoan!

Garazi Altuna Aburuza (Villabona). Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu asko denon partetik!



Eurtsi sasoiari, Bihurri!

argazki lehiaketa

bidali opor hauetako argazkiak!

NORA BIDALI?

1. Saria
Busturiako Iturri landetxean bi gau pasatzeko

2. Saria
Bermeoko Artur landetxean bi pertsona bi gau pasatzeko

3. Saria
Larte gaztagile bi gazta eder

HITZA aste santuko argazki lehiaketa

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora edo **HITZA**ren Tolosako edo Leitzaiko egoitzetara **Apirilaren 6tik 28ra**